



Afiliazioa %1,0 hazi zen otsailean

Gizarte Segurantzako afiliazioa
Urte bakoitzeko otsaila. Milakoak



Iturria: Gizarte Segurantza.

Otsailean, Gizarte Segurantzako afiliazioa %1,0 hazi zen, aurreko urteko hil berarekin alderatuta. Zehazki, ia 1.020.000 afiliazio erre-gistratu ziren, datuak eskuratu zire-netik otsail batean inoiz jaso den kopururik handiena baita. Aurreko hilabeteetan bezala, emakumeek (%1,2) portaera hobea izan zuten gizonek (%0,9) baino.

Langabezia erregistratua jaitsi zen urte arteko tasan

Langabezia erregistratua
Urte bakoitzeko otsaila. Milakoak




Iturria: Lanbide.

Lanbideren bulegoetan erregistra-tutako langabezia %1,9 murriztu zen aurreko urteko otsailaren al-dean. Balio absolutuetan, langabe-en kopurua 108.500era iritsi zen, 2008tik otsail batean inoiz jaso den erregistrorik txikiena. Beherakada hori gizonen (-%2,2) eta emakume-en (-%1,7) bilakaerak eragin zuen.



Europako langabezia tasak %6,2an jarraitzen du

Langabezia tasa euroaren eremuan
Ehunekoak



Iturria: Eurostat.

Urtarrilean, euroguneko langabezia tasa %6,2an kokatu zen, 2024. urtea itxi zuenarekin berdinduta. Horrela, langabezia tasa %6,0tik pixka bat gora egonkortu dela haute-maten da. Europar Batasunaren kasuan, langabezia tasa %5,8 izan zen, aurreko hilabeteekin alderatuta ere aldaketarik gabe.

IPIa %1,7 igo zen urtarrilean urte arteko tasan

Industria produkzioaren indizea (IPI)
Urte bakoitzeko urtarila



Iturria: Eustat.

Eustatek berriki argitaratutako informazioaren arabera, **urtarrilean Euskadiko industria produkzioa aurreko urteko hilabete berean erregistratutakoa baino %1,7 handiagoa izan zen.** Gehikuntza horretan, batez ere ekipamendurako ondasunek (%6,6) eta kontsumoko ondasunek (%2,3) hartu zuten parte. Aitzitik, energiaren ekoizpena murriztu egin zen (-%8,8).